

XUXURLAK

BIDAIARIA

B KATEGORIA: POESIA

UMEA IZAN NINTZEN NI

Animaliekin hitz egiten zuen
umea izan nintzen ni.
Txorien ametsak
entzuten zituena.

Landareekin jolasten zuen
umea izan nintzen ni.
Bitxiloreekin saltoka
zebilena.

Umea izan nintzen ni.
Tartaren kandelak
itzali nituen arte.

Nire egunerokoa
malkoz bete zen.
Nire egunen lehortasunen
lekuko nintzen bitartean.

Itzaletan jartzen nuen arreta,
aldameneko argietaz ohartu gabe.
Burua biratu,
pauso bat eman eta
beste argazki batean
sartu nintzen: koloreek
nire inguruan dantzatzen zuten.

Ordulariaren tik-tak bakoitza
opari bat zen,
beste aukera bat.
Bederatzietako gosariak,
seietako abestiak,
ordu bietako liburuak.
Egunak betetzen dituzten ekintzak
eta bizitzak osatzen dituzten plazerak.

HEGAN EGITEN

Buru gainean nuen iluntasunaren
izar ezagunak
buelatu ziren.
Itzaletan gordeta zeuden
konstelazioak ikusgai
bihurtu ziren,
nire bihotzaren zulo gaztea
berriz ere argituz.
Nire begiak ilargia
bilakatu ziren,
bizitzak eskaintzen zizkidan
meteoritoez gozatuz.

Lurra uzteko prestatu eta
zulo beltzak saihestuz
aurrera egin.
Unibertso bakarti honetan
lagun egiten didaten
sateliteak babestuz:
hegan egin ahal izateko
energia hornitzen nauten planetak,
inoiz hustu ez nadin
betetzen nauten bizipenak.